

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1434

177/2013 DEKRETUA, martxoaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordean dituen kideak kargutik kendu eta berriak izendatzeko dena.

Energiaren Euskal Erakundeari buruzko azaroaren 24ko 9/1982 Legeko 8. eta 9. artikuluetan ezartzen denez, erakunde horretako lehendakariak eta horri atxikita dauden sozietateetako lehendakariez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkotza egingo duten bost kontseilarik eta industria eta energia arloetan izen handia duten pertsonen artetik aukeratutako beste hainbestek osatuko dute erakunde horretako Zuzendaritza Batzordea.

Aipatutako araudia oinarritzat harturik, irailaren 8ko 508/2009 Dekretuaren bidez eta ekainaren 28ko 145/2011 Dekretuaren bidez, azken berrikuntza partzialak egin ziren Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordean, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkariak dagokiez. Hala ere, orain kargutik kendu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Batzordean izan dituen kideak eta berriak izendatu, Administrazioaren sail-antolaketaren berrantolaketatik eta abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan ezarritako eskumen-esleipenagatik. Lehendakariaren dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeko da, bai eta eginkizunak eta arloak zehazteko ere.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaur-laritzaren Kontseiluak 2013ko martxoaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoak Energiaren Euskal Erakundean dituen kontseilariak, beheago zehaztutakoak, kargutik kentzea:

Francisco Javier Garmendia Martínez jauna.

Juan Ignacio Goicolea Ruigómez jauna.

Carlos Aguirre Arana jauna.

M.^a Aranzazu Leturiondo Aranzamendi andrea.

José Ignacio Hormaeche Azumendi jauna.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari gisa, Energiaren Euskal Erakundean kontseilari izateko izendatzea honako hauek:

Juan Ignacio García de Motilola Ubis jauna.

Estibaliz Hernáez Laviña andrea.

Javier Zarraonandia Zuloaga jauna.

Pilar Urruticoechea Uriarte andrea.

Joseba Andoni Alcalde Amutxategi jauna.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko martxoaren 12an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.